

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 29/2016 Foru Dekretua, martxoaren 22koa, Garaio eta Landako Hondartzen Kudeaketa Batzordearen osaera, antolaketa eta funtzionamendua onartzen dituen

Arabako Foru Aldundiak mantendu izan ditu historian Arabako Lurralde Historikoko Garaio eta Landa parkeetako erabilera publikoko eta ingurumen hezkuntzako azpiegiturak, ekipamenduak eta zerbitzuak. Hain zuzen ere, bi parke horietan daude Garaio 1 hondartza edo iparraldekoa, Garaio 2 edo hegoaldekoa eta Landako hondartza, Barrundia, Burgelu eta Arratzua-Ubarrundia udalerrietan, hurrenez hurren.

Bandera Urdina sari bat da, eta ingurumen kalitatea ziurtatzeko sistema bat ere bai, "Ingurumen Hezkuntzarako Fundazioa" izeneko irabazteko xederik gabeko gobernuz kanpoko erakundeak garatua, zeinaren adarra eta programa kudeatzailea Espainian ADEAC elkarteak baita. Bandera Urdina eskuratu eta atxikitzeko, kalitate estandar zorrotzak egiaztatu behar izaten dira honako arlo hauetan: bainurako urak, segurtasuna, ingurumen kudeaketa eta iraunkortasunerako informazioa eta hezkuntza. Eskatzen diren irizpideak, eta haien interpretazioa, erakunde horrek urtero-urtero egiten dituen gidetan jasotzen dira, zeinak jendearen esku jartzen baitira bere web orrian.

Bandera Urdinaren irizpideak bat datoz Arabako Foru Aldundiak Garaio eta Landako hondartzetan gauzatu duen kudeaketaren ibilbidearekin, bai eta leku horietarako ezarritako helburuekin ere, alegia, ingurumen hezkuntza eta natura zaintzea, betiere erabilera publikoarekin bateragarri izateko moduan.

Arabako Lurralde Historikoen interesetarako onuragarritzat jo denez Arabako Foru Aldundiak hondartza horietan egiten dituen jardunak Bandera Urdinaren irizpideekin lotzea, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak, otsailaren 29ko 54/2016 Foru Aginduaren bidez, Bandera Urdina konpromisoa izenpetu du, Arabako Foru Aldundiaren ordezkartzan. Konpromiso horrek berekin dakar Bandera Urdinaren nazioarteko irizpideetan ezarritako betebeharrak onartzea.

Bandera Urdina saria emateko eskatzen diren irizpideetako bat Hondartzen Kudeaketa Batzordea eratzea da, zeinak aholkuak emango baitizkio Arabako Foru Aldundiari, eta harekin lankidetzan arituko, hondartzetako ingurumen kudeaketarako metodoak eta jarduerak abian jartzeko eta haien jarraipena egiteko, eta hondartzetako instalazioetan ikuskatzeak eta ingurumen auditoretzak egiteko. Batzordeak, bestalde, lan aktiboa egingo du urbazterreko espazio horiek sustatzeko eta modu iraunkorrean erabiltzeko eta, horretarako, hainbat ekintza eta jardunbide egingo ditu, horiei balio handiagoa emateko, haietako ingurune naturala etengabe hobetzeko eta instalazio eta ekipamenduen kalitatea hobetzeko. Orobat, eremu horiek jendeak era arduratsuan erabil ditzan ere sustatuko du, bertako ingurumen balioak babeste aldera.

Horregatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea Garaio eta Landako Hondartzen Kudeaketa Batzordea era dadila, bai eta batzorde horren egitura, osaera eta funtzionamendua eta batzordearen berariazko eginkizunak ere. Foru dekretu honen eranskinean xedatutakoak arautuko du batzordea.

Bigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 22a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

AMAIA BARREDO MARTÍN

ERANSKINA

GARAIO ETA LANDAKO HONDARTZEN KUDEAKETA BATZORDEAREN BERARIAZKO EGINKIZUNAK, OSAERA, ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

1. artikulua. Izaera eta adskripzioa

1. Garaio eta Landako Hondartzen Kudeaketa Batzordea kide anitzeko organoa da, kontsultarakoa, aholku emailea, topaketarakoa, hitzartzekoa eta parte hartzekoa, eta bertako kide dira, batetik, Garaio eta Landako hondartzak eta haietako natura ingurunea hobetzeko eta sustatzeko interesa duten eta, bestetik, eremu horiek ingurumen iraunkortasuneko irizpideak betez erabil daitezen sustatu nahi duten administrazio, erakunde, gizarte eragile eta ekonomia arloko eragileak.

2. Garaio eta Landako Hondartzen Kudeaketa Batzordea Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailari atxikita egongo da, eta azken horrek batzordeari bere eginkizunak betetzeko behar duen administrazio laguntza eta laguntza teknikoa emango dio.

3. Batzordearen txostenak fakultatiboak eta ez lotesleak izango dira.

2. artikulua. Eginkizunak

1. Garaio eta Landako Hondartzen Kudeaketa Batzordeak informazioa emango du hondartzetako ingurumen kudeaketarako metodo eta jarduerak abian jartzeari eta haien jarraipenari buruz, bereziki nazioarteko irizpide normalizatuekin bat etortzeari dagozkion gaitetan. Informazioa nahitaez eman beharko du, baina ez da loteslea izango. Horrez gain, parte hartuko du estrategia horren jarraipena eta ebaluazioa egiteko lanetan eta, horretarako, lankidetzan arituko da instalazio horietako ikuskatzeak edo ingurumen auditoriak egiteko.

2. Batzordeak aholkuak emango dizkio Arabako Foru Aldundiari eta, gainera, harekin lankidetzan arituko da, urertzeko eremu horiek sustatzeko eta modu iraunkorren erabiltzeko. Horretarako, zenbait ekintza eta jardunbide bultzatuko ditu, leku horiei balio handiagoa emateko, haietako natura ingurunea etengabe hobetzeko eta instalazio eta ekipamenduen kalitatea hobetzeko. Halaber, jendeak eremu horiek era arduratsuan erabil ditzan sustatzeko ere aholkuak eta laguntza emango dizkio, bertako ingurumen balioak babeste aldera.

3. Hondartzekin lotura duen administrazio, erakunde edo gizarte eta ekonomia eragileek edo Arabako Foru Aldundiaren edozein sailek kontsultatzen dizkioten gai guztiei buruzko txostenak eman beharko ditu, baldin batzordearen jardun esparrukoak badira.

3. artikulua. Osaera

1. Hona hemen Garaio eta Landako Hondartzen Kudeaketa Batzordeko kideak:

a) Bertako buru izango den Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua.

- b) Ingurumen eta Hirigintza Sailaren bi ordezkari
 - c) Arratzua-Ubarrundiako alkatea
 - d) Barrundiako alkatea
 - e) Burgeluko alkatea
 - f) Arabako Lautadako Kuadrillako lehendakaria
 - g) Zuiako Kuadrillako lehendakaria
 - h) Larrialdiei aurre egiteko euskal sistemaren ardura duen Eusko Jaurlaritzako sailaren ordezkari bat
 - i) Osasun publikoaren ardura duen Eusko Jaurlaritzako sailaren ordezkari bat
 - j) Turismo arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailaren ordezkari bat
 - k) Euskal Autonomia Erkidegoan turismoa sustatzeko ardura duen Eusko Jaurlaritzako sailaren edo enpresa publikoaren ordezkari bat
 - l) Natura aztertzen duten eta Araban lanean diharduten elkarte onetsietako baten ordezkari bat
2. Ingurumen eta Hirigintza Sailaren ordezkarietako batek jardungo du idazkari, eta hitza eta botoa izango ditu.

3. Batzordearen bileretan egon daitezke aztertzen diren gaietarako egoki irizitako teknikari edo adituak, eta bertan egiten diren eztabaidetan parte har dezakete; hitza izango dute, baina botorik ez.

4. artikulua. Izendapenak

1. Batzordeko kideak eta beren ordezekoak Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak izendatuko ditu, 3. artikuluan adierazi diren erakunde eta antolakundeek proposaturik, hala badagokio. Bestalde, Diputatuen Kontseiluaren erabaki bidez izendatuko dira batzordean parte hartuko duten foru aldundiko sailen ordezkariak.

2. Batzordeko kide hautetsien eta ordezekoen izendapena lau urterako izango da, eta iraupen berdineko aldietarako berritu ahal izango da.

3. Batzordeko kideek beraien izendapena proposatu zuten erakunde edo entitateek proposaturik utziko dute postua.

4. Batzordeko kide izateak ez du eskubiderik emango inolako ordainsaririk jasotzeko.

5. artikulua. Funtzionamendua

1. Gizartearen interesak ordezkatzeko dituzten erakundeek parte hartzen duten administrazio arteko kide anitzeko organoei buruz lege araubidearen eta administrazio prozedura erkidearen legeriak xedatutakoaren arabera arautuko da Garaio eta Landako Hondartzen Kudeaketa Batzordea.

2. Batzordeak bere funtzionamendu arauak ezarri edo osatu ahal izango ditu, bere arautegi organikoa onartuta. Arautegi organikoa onartu edo aldatzeko, bere kideen gehiengo osoaren baiezko botoa beharko da. Betiere:

- a) Erabakiak hartzeko garaian berdinketarik izanez gero, lehendakariaren botoak erabakiko du.
- b) Garaio eta Landako Hondartzen Kudeaketa Batzordearen lehendakaritza eskuordetu egin ahalko du Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak.

c) Batzordearen deialdien araubidea eta balio osoz eratzeko beharrezko quoruma haren arategi organikoak xedatzen duenari lotuko zaizkio. Ezer espresuki aurreikusi ezean, deialdiak lehendakariaren erabakiz egingo dira, bere ekimenez edo 3 batzordekideek eskaturik, eta batzordea balio osoz eratzeko beharrezkoa izango da gutxienez ere haren kideen erdiak bertan egotea, baldin eta horien artean lehendakari diharduen pertsona eta idazkari diharduena edo -hala dagokienean- beraien ordezkioak badaude.

d) Batzordeak urtean hiru bilera egin behar ditu, gutxienez: lehena, bainu sasoi hasi aurretik; bigarrena, sasoi horretan; eta, hirugarrena, bainu sasoi amaitzen denean. Nolanahi ere, bilera gehiago ere deitu daitezke.

3. Baliabide elektronikoak erabilia bildu ahal izango da batzordea, ekainaren 22ko 11/2007 Legearen, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izatearenaren, lehenengo xedapen gehigarriak, edo hala badagokio, lege hori ordeztzen duten arauak xedatutakoarekin bat etorritik.